



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2020 TXJU001: ARAUDI PLANAREN EBALUAZIO TXOSTENA

AURREKARIAK

2019ko abenduaren 19an Ibarra Udaleko Udaltzako ez-ohiko bilkuran 2020 urterako Ibarra Udaleko erregelamendu eta araudi plana onartu zuen. Plana ikusgai egongo da Ibarra Udaleko Web orrialdean. Urtea amaiturik plana berrikusi eta honen inguruko gogoetak egiteko txosten hau egiten da.

ARAUDIA

1.- 39/2015 legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (132. Art)

“132. artikulua. Arau-plangintza.

- 1. Urtez urte, administrazio publikoek argitara emango dute araugintza-plan bat, eta hartan jasoko dira hurrengo urtean onesteko igorriko diren lege- edo erregelamenduekimenak.*
- 2. Onetsitakoan, Urteko Araugintza Plana argitaratu egingo da, dagokion administrazio publikoaren gardentasun-atarian.”*

Hau ikusita, irailaren 18ko 1174/1987 Errege Dekretuak, nazio-gaikuntza duten tokiko administrazio funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duenak, 3.a) art.an ezarritakoa betez, honako txostena egiten dut.

TXOSTENA

2019 URTEKO ARAUDI PLANEAN HONAKO ARAUAK AURRIKUSI ZIREN:

ARAUA	DEPARTAMENTUA	EGOERA	ONARPENA	GAO
1. Zerbitzu sozial	Gizarte Politikak,	EZ	DA	



IBARRAKO UDALA
(Ipuzlueta)
Euskal Herria

berrien prestazioaren arauketa (bakarka eta mankomunitate mailan ere)	politika feministak eta aniztasuna	BURUTU		
2. Baliabiderik gabeko pertsonentzako ehorzketei burutzeko udal ordenantzen aldaketa eta egokitzapena	Gizarte Politikak, politika feministak eta aniztasuna	EZ DA BURUTU		
3. Apatta Ilko industria poligonoaren garapenerako Plan berezia	Hirigintza departamentua	ONARTU DA	2019/05/29 TOKIKO GOBERNU BATZORDEA	2019/06/19
4. Hirigintzako eta eraikuntzako udal-ordenantzen garapena zenbait jarduetarako	Hirigintza departamentua	EZ DA ONARTU		
5. Garajeen sarrerak erregulatzeko badoen ordenantza	Hirigintza departamentua	EZ DA ONARTU		
6. Diru-laguntzen ordenantza berria	Idazkaritza (kontuhartzaitzarekin bateratuz)	EZ DA BURUTU		
Tratamenduen jardueren erregistroa arautzen duen ordenantza	Idazkaritza	ONARTU DA TRATAMENDU ERREGISTROA	2019/12/19 UDALBATZA	ARGITAPENA BILDALIA
7. Administrazio elektronikoa eta gardentasuna eta interoperatibitateare inguruko araudiak	Idazkaritza	EZ DA BURUTU		
8. 2020 -2023 urteetarako diru-	Idazkaritza	EZ DA		



IBARRAKO UDALA
(Ipuzlueta)
Euskal Herria

laguntza plana		BURUTU		
9. Pertsonal arloan barne araudiaren aldaketa	Pertsonala (Idazkaritza)	EZ DA BURUTU		
Izapideen liburuaren onarpena	Idazkaritza	ONARTU DA	2019/03/28 UDALBATZA	
10. Arreta Zerbitzuaren funtzionamendua arautuko duen erregelamendua	Idazkaritza	EZ DA BURUTU		
11. Lan poltsak sortu eta kudeatzeko ordenantza	Pertsonala (Idazkaritza)	EZ DA BURUTU		
12. Elkartearen erregistroaren ordenantza	Idazkaritza	EZ DA BURUTU		
13. Gorputz poliziala arautuko duen erregelamendua eta zirkulazioa, zehapen prozedura... arautzeko araudi denak	Agente burua (idazkaritzarekin)	EZ DA BURUTU		
14. Datu pertsonalen babeserako araudia	Idazkaritza	EZ DA BURUTU		
15. Administrazio elektronikoen funtzioamendua argitzeko araudia	Idazkaritza	EZ DA BURUTU		
2020ko aurrekontu orokorra onartzea	Kontuhartzailletza	ONARTU DA	2019/11/14 UDALBATZA	248 2019/12/30
2019ko aurrekontuaren beharrezko kreditu aldaketak onartzea	Kontuhartzailletza	ONARTU DA		



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2020ko udal zergak eta tasak arautzeko ordenantzaren testu bateratua onartzea	Kontuhartzaitza	ONARTU DA	2019/10/24 UDALBATZA	207 2019/10/29
2019-2020 ikasturte garairako kultura eta kirolletako ikastaroen ordenantza aldaketa	Kontuhartzaitza	ONARTU DA	2019/07/09 UDALBATZA	136 2019/07/17
16. Gazteen aisialdirako lokalak arautzeko udal ordenantza	Kultura eta Gazteria departamentua	EZ DA ONARTU		
17. Herri baratza irekiak jartzea arautzen duen ordenantza	Ingurumen, merkataritza eta nekazaritza teknikaria	EZ DA ONARTU		
18. Bide publikoan terrazak salgai dauden produktuen erakuslekuak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen ordenantza	Obra eta zerbitzuak departamentua	EZ DA ONARTU		
19. Obra txikiak egiteko lizentzie buruzko eta obraren jakinaren gaineko ordenantza	Obra eta zerbitzuak departamentua	EZ DA ONARTU		
20. Udal Kiroldagiko erabilera arautzeko araudia	Kirol departamentua	EZ DA ONARTU		
21. Gazteen aisialdirako lokalak arautzeko ordenantza	Kultura eta gazteria departamentua	EZ DA ONARTU		
22. Zuhaitzak kudeatzeko eta	Ingurumena, Merkataritza eta	EZ DA ONARTU		



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

babesteko ordenantza	Nekazaritza departamentua			
23. Herri bideen eta baso pisten ordenantza osatzea	Ingurumena, Merkataritza eta Nekazaritza departamentua	EZ	DA	
		ONARTU		

BURUTU EZ DIREN ARAUDIEN ZERGATIA:

1.- ZERBITZU SOZIAL BERRIEN PRESTAZIOAREN ARAUKETA

Urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuetako euskal sistemaren prestazio eta zerbitzue buruzkoak ezarritakoari jarraiki, aurreikusitako eskumen banaketa dela eta, erregelamendu berriak aurreikusi beharko liratezke. Baina, 2019an ziklo politikoa amaitu denez eta gizarte zerbitzuetako mankomunitatea adostasun politikora iritsi ez denez gaia bertan behera gelditu da.

2.- BALIABIDERIK GABEKO PERTSONENTZAKO EHORZKETEI BURUZKO UDAL ORDENANTZA

Ziklo politikoa amaitu denez, gaia bertan behera gelditu da 2019. Urtean.

3.- APATTA IIKO INDUSTRIA POLIGONOAREN GARAPENERAKO PLAN BEREZIA

2018 WPOL0087 espediente bidez izapidetzen ari da gaia eta une honetan alegazio fasean dago txosten sektorialaren zai. Tolosako lurak ere hartzen direnez bi herriek izapidetzea koordinaturik egin behar dute.

2019ko maiatzaren 29ko Tokiko Gobernu Batzordeak onartu zuen plan bereziaren hasierako onarpena eta 2019ko ekainaren 19an GAO n argitaratu zen.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

4.- HIRIGINTZAKO ETA ERUIKUNTZAKO UDAL ORDENANTZEN GARAPENA ZENBAIT JARDUETARAKO

Plan orokorra indarrean jarri eta hura osatzeko zenbait ordenantza egitea komeni da. Eskaera gehienak gazte lokalen erabileratik eratorri dira eta gai hau Kultura eta Gazteria departamentutik aztertzea erabaki da ondorioz ez da garatu Hirigintza departamentutik.

5.- GAREJEEN SARRERA ERREGULATZEKO BADOEN ORDENANTZA

Udaltzainen partehartzea behar dela ondorioztatu da ordenantza honen garapenean. Egun polizia departamentua hasi berria da eta ondorioz atzeratu egin da ordenantza honen lanketa.

6.- DIRU LAGUNTZEN ORDENANTZA BERRIA

Diru-laguntzen ordenantza berria, printzipioz Udalean egin diren izapideen aldaketa eta sistema elektronikoa edo espediente elektronikoak jartzeak atzeratu egin du.. Alde batetik, egoki iruditu da denboran aztertzea espediente horien kudeaketa nola egingo den elektronikoki eta ondoren horri eutsita ordenantza berria eratzea etorriko litzateke. Hau dela eta 2020. Urtean saiakera egingo da ordenantza hau egokitzen eta egun dugun kudeaketa sistema berria txertatzen. 2020. Urterako proposamena egiten du Idazkaritzak. Honen ariari, 2021-2024 bitarteko diru-laguntza plana onartzea ere egingo da.

7.- ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA ETA GARDENTASUNA ETA INTEROPERATIBITATEAREN INGURUKO ARAUDIAK

Egun Ibarra udalean Informatika mailan daukagun nahastea konpondu bitartean (bi enpresa kontratatu dira urgentziarako lanak egiteko informatikari baten kontratazioa adostu bitartean) ez dirudi egokia araudi honen analisi osoa egitea. Alde batetik idazkaritzak eta bestetik Informatika arloan jakituna den norbaitek parte hartu behar baitu araudiaren prestaketan. Ondorioz 2020 edo 2021 urterako amaiturik egotea espero da.

8.- 2020-20203 URTEETARAKO DIRU-LAGUNTZA PLANA

2020ko urtarrilerako egitea aurreikusten da eta gehienez 2020ko otsailean onartuko da.

9.- PERTSONAL ARLOAN BARNE ARAUDIAREN ALDAKETA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Egun pertsonal diagnosi bat kontratatu da eta horren analisisa 2019ko urrian auztu da. Honekin batera departamentuen antolamendu proposamen bat egin da LKS enpresaren eskutik eta hau 2019ko azaroan aurkeztu da. Guzti hau egun aztertzen ari da eta negoziazio mahaiarekin lankidetzan pertsonal barne araudia aldatzeko lanketak egiten ari dira 2019ko abenduan. Ondorioz, araudi egoki eta zehatza 2020. urtean onartuko dela espero da.

10.- ARRETA ZERBITZUAREN FUNTZIONAMENDUA ARAUTUKO DUEN ERREGELAMENDUA

Egun pertsonal diagnosi bat kontratatu da eta horren analisisa 2019ko urrian auztu da. Honekin batera departamentuen antolamendu proposamen bat egin da LKS enpresaren eskutik eta hau 2019ko azaroan aurkeztu da. Antolamenduaren inguruan erabakiak hartu arte berez ezin da egoki arautu Arreta Zerbitzuaren funtzionamendua. Ondorioz antolaketa erabakiak egoki onartu ondoren lanketa hau egiteko prest egogo ginatezke eta erregelamendu egoki bat burutuko da 2020. Urterako.

11.- LAN POLTSAK SORTU ETA KUDEATZEKO ORDENANTZA

Egun Ibarra Udalak ez du lan poltsak sortu eta kudeatzeko ordenantzarik. Ikusita Giza Baliabideen Arrazionalizazio plan bat burutzen ari dela eta hau aurrera eramateko eskaintza publikoak egin behar dituela eta ondorioz hurrengo urteetan oposaketa ugari egingo dituela 2020. Urterako lan poltsak sortu eta kudeatzeko ordenantza egitea ezinbesteko izango da eta lehentasuna izango du. 2019. Urtean Giza Baliabideen Arrazionalizazio planean buru belarri aritu izanak ez du denborarik eman hau kudeatzeko eta honen inguruko azterketa egiteko.

12.- ELKARTEEN ERREGISTROAREN ORDENANTZA

Legeak elkarten erregistroa izateko betebeharra ezartzen du. Ibarra udala zai egon da erregistro honen inguruan IZFEk emaitzarik lortzen zuen baina egun oraindik ez dugu ezer lortu beraz informatikoki baliabideak jarri beharko ditugu hau aurrera eramateko eta ondoren horren arauketa egin beharko da. Honek ere urgentzia izango du 2020 urtean.

13.- GORPUTZ POLIZIALA ARAUTUKO DUEN ERREGELAMENDUA

Egun aldaketak egon dira plantilan eta agente lehenengo postua 2020ko urtarrilaren 2an hasi berri da. Agente guztiekin ausnartu beharko da erregelamendua



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

14.- DATU PERTSONALAREN BABESERAKO ARAUDIA_

Datu babesen legeak adierazten du, udalean dauden datuen tratamenduen jarduera erregistro bat egin behar dela. Oraindik ez dugu gai honetan aurreapenik egin. 2019ko urte amaieran egingo den Udalbatzan onartuko da Golbal Factory enpresaren laguntzarekin egindako lehen tratamendu zerrenda. Beraz, berria da guretzat eta oraindik ez da argitu (informatikaririk ez dagoenez) tratamendu horien segurtasun neurriak zeinek baloratu behar dituen eta nola baloratu behar diren. Tratamenduak segurtasun informatikoak hartzeko beharra dakar eta horretan jakituna den espezialista kontratatzea beharrezkoa zaigu eta horrela ez den kasuan lanketa hau kanpo enpresa batekin egin behar da. Hau burutu bitartean zaila da ordenantza egitea. Baina 2020. Urtean egiten saiatuko gara.

Araudi hau tratamenduen jarduera erregistroarekin lotu behar da, agian 2020. Urtean bi araudiak elkarrik egitea adosten da eta horrela datu babesarekin duen izapide oro arau berdin batean uztartuko litzateke. Hau da 2020. Urterako idazkaritzak proposatzen duena.

15.- ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN FUNTZIONAMENDUA ARGITZEKO ARAUDIA

Oraindik Izferekin lanketan ari da Ibarra Udala. Programa denak zehaztu eta egokitu arte ezinezkoa izango da araudi honen lanketa egokia burutzea.

16.- GAZTEEN AISIALDIRAKO LOKALAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA

Udal korporazioak beste gai batzuei garrantzia eman behar izan dio eta ondorioz ez da ordenantza honen inguruan lanketarik egin.

17.- HERRI BARATZA IREKIAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

01637 lursaila pribatua da eta ondorioz konstruktore batek erosi zuenaren susmoa du udalak. Salerosketa hau auzietara iritsi zen eta egun oraindik desadostasunak dauden salerosketa horren inguruan. Beste lekurik ez dagoela kontutan izanik ordenantza lantzea ezinezkoa izan da.

18.- BIDE PUBLIKOAN TERRAZAK SALGAI DAUDEN PRODUKTUEN ERAKUSLEKUAK ETA BESTE ELEMENTU LAGUNGARRIAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ordenantza hau ez da aurrera eraman ez delako borondate politikorik egon, gainera, herriaren azterketa sakona behar du eta zerbait landu bada ere, ez du denborarik eman gaia ondo aztertzeko erabaki egokienak hartu ahal izateko.

19.- OBRA TXIKIAK EGITEKO LIZENTZIEI BURUZKO ETA OBRAREN JAKINAREN GAINEKO ORDENANTZA

Ordenantza hau ez da aurrera atera denbora faltagatik.

20.- UDAL KIROLDEGIKO ERABILERA ARAUTZEKO ARAUDIA

Kirol arloko koordinatzaile aldaketak, araudia lantzerako orduan arazo bat izan da eta zailtasunak ekarri ditu. Koordinatzaile gabe araudia egitea ezinezkoa izan da eta kontuhartzaitza sailarekin lanketa egiteko beharra dagoenez, atzeratu egin da araudi honen onarpena.

21.- GAZTEEN AISIALDIRAKO LOKALAK ARAUTZEKO ORDENANTZA

2018ko eta 2019ko erregelamenduen planetan "Gazteen aisialdirako lokalak" arautzeko udal ordenantza garatzea zuen helburu Ibarra Udalak. Udalbatzak pasa den azken bi urtetan bestelako gaiei eman die lehentasuna, eta ondorioz, aipatutako ordenantzaren lanketarik ez da egin.

Udalak gazteen aisialdirako lokalek egunerokotasunean eragiten dituzten ondorioen berri izanik, eta teknikari honek araugintza planean "Gazteen aisialdirako lokalak" arautzeko udal ordenantza garatzeko beharra dagoela berresten badu ere, Udalak 2020. urterako gaia lehentasunezkoztat jotzen ez duela adierazi du.

22.- ZUHAITZAK KUDEATZEKO ETA BABESTEKO ORDENANTZA

Zailtasunak daude honen inguruko araudi bat egiteko zeren legedi propiorik ez dagoenez ordenantza zerotik hasi beharko litzateke. Nahiz eta beharrezkoa izan oraindik honen inguruan garapenik egiten den itzarotea erabaki da.

23.- HERRI BIDEEN ETA BASO PISTEN ORDENANTZA OSATZEA.

2018an sartu zen indarrean ordenantza eta egurra ateratzeak bide eta pista horietan sortu ditzakeen kalteak jasotzen zituen. Aldiz 2019. Urtean betelanek bide eta baso pista horietan sortu
2020 TXJU 0001



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ditzaketen kalteak jaso nahi ziren baina legedi aldaketak eta beste gai batzuen lehentasunak ezinezkoa egin du garapena.

AURIKUSI GABE ZEUDEN ARAUAK ETA BURUTU DIRENAK				
ARAUA	DEPARTAMENTUA	EGOERA	ONARPENA	GAO
GIZA ARRAZIONALIZAZIO PLANAREN I FASEA	Idazkaritza	BURUTUA		246 (2019/12/26)

2020 URTERAKO AURREIKUSTEN DIREN ARAUDIAK

2020. URTERAKO ARAUDI PLANA	
DEPARTAMENTUA	ARAUDIA
OGASUNA	2020 URTERAKO AURREKONTUA ETA KREDITU ALDAKETAK HAU BURUTZEKO
	2021 URTERAKO UDAL ZERGA ETA TASAK ARAUTUKO DITUZTEN ORDENANTZA FISKALEN TESTU BATERATUA ONARTZEA
	2021 URTERAKO AURREKONTUA OROKORRA ONARTZEA
OGASUNA/IDAZKARITZA	DIRU LAGUNTZEN ORDENANTZA OROKORRA ETA DIRULAGUNTZA PLANA HIRUHILABETEKOA
OGASUNA/KIROLA	2020-2021 IKASTURTE GARAIKO KULTURA ETA KIROLETAKO IKASTAROEN ORDENANTZA
OBRA/ZERBITZUAK	BIDE PUBLIKOAREN OKUPAZIOARI BURUZKO ORDENANTZA: OBRAK EGITEKO LAGUNGARRIAK, TERRAZAK ETA SALGAI DAUDEN PRODUKTUEN ERAKUSLEKUAK ETA BESTE ELEMENTU LAGUNGARRIAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA
OBRA/ZERBITZUAK	OBRA TXIKIAK EGITEKO LIZENTZIEI BURUTZKO ETA OBRAREN JAKINAREN GAINEKO ORDENANTZA
OBRA/ZERBITZUAK	JARDUEREN ORDENANTZA AUTOLIKIDAZIOA
INGURUMEN, MERKATARITZA ETA NEKAZARITZA	ZUHAITZAK KUDEATZEKO ETA BABESTEKO ORDENANTZA
IDAZKARITZA	2020-2023 URTEETARAKO DIRU-LAGUNTZA PLANA
IDAZKARITZA	PERTSONALEKO BARNE ARAUDIA
IDAZKARITZA	ARRETA ZERBITZUAREN FUNTZIONAMENDUA ARAUTUKO DUEN ERREGELAMENDUA
IDAZKARITZA	LAN POLTSAK SORTU ETA KUDEATZEKO ORDENANTZA
IDAZKARITZA	ELKARTEEN ERREGISTROAAREN ORDENANTZA
IDAZKARITZA	DATU PERTSONALAREN BBESERAKO ARAUDIA


2020 TXJU 0001



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

IDAZKARITZA	ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN FUNTZIONAMENDUA ARGITZEKO ARAUDIA
INGURUMENA	HIRI-HONDAKINEN KUDEAKETA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA ALDATZEA FRAKZIO ORGANIKOA ETA ERREFUSA ATERATZEKO EGUNGO EGUTEGIA JASOZ
GIZARTE POLITIKA, POLITIKA FEMINISTA ETA ANIZTASUNA	BALIABIDE GABEKO PERTSONENTZAKO EHORZKETEI BURUZKO ORDENANTZA BERRIKUSTEA
GIZARTE POLITIKA, POLITIKA FEMINISTA ETA ANIZTASUNA	ZERBITZU SOZIAL BERRIEN PRESTAZIOA, BAI BANAKA BAI MANKOMUNITATE MAILAN HORREN ARAUKETA
HIRIGINTZA	GARAJEEN SARRERAK ERREGULATZEKO BADOEN ORDENANTZA

Ibarrako Udaleko Idazkaria



Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2020 urtarrilaren 3an